Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko abuztuaren 10a, osteguna — 154 — Jueves, a 10 de agosto de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

### Hirigintza

*HIE 28 Sorabilla Industriala eremuko ZI-28.4 azpieremurako Xehetasun-azterketaren behin betiko onespena.*

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 89.5 artikuluan xedaturikoari jarraiki, erabaki horri buruzko iragarkia argitaratzen da.

2023ko uztailaren 27an Udalbatzaren Osoko Bilkurak egin duen batzarraldian behin betiko izaeraz onetsi da Low Cost Euskadi SL enpresaren izenean dihardun Giacomo Giovanni Felcher jaunak 2023ko urtarrilaren 20an aurkeztu zuen Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko HEA 28 Sorabilla Industriala eremuko ZJ-28.1 azpieremurako Xehetasun-azterketa.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Bilboko Epaitegian, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ohartarazten da, baita ere, helegitea aurkezteko epea ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunean hasten bada ere, hori epea amaitzen den hilabetean, jakinarazpen- edo argitalpen-datari dagokion egunean, amaitzen dela. Egun hori jaieguna edo baliogabea bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Baita ere, jakinarazten da, helegite hori epea iraungitzen deneko egunaren hurrengo laneguneko 15.00etara arte aurkeztu ahal izango da, Epaitegiaren Idazkaritzan edo, bestela, egongo balitz, ezarri den erregistro nagusiko zerbitzuan edo bulegoan, Auzitegi Konstituzionalak martxoaren 14an emandako 64/2005 Epaiaren arabera.

Hori guztia egoki iritzitako beste edozein helegite aurkeztearen kaltetan izan gabe.

Azkenik, jakinarazten da berraztertzeko helegitea aurkezteak ez duela eteten aurkatutako egintzaren burutzapena, etete hori eskatu eta Udalak onartzen duenean izan ezik, eta berraztertzeko helegiterik edo administrazioarekiko auzi-helegiterik ez aurkezteak, edota, dagokionean, horiek epez kanpo aurkezteak, ebazpena administrazio-egintza irmo bilakatzen duela.

Andoain, 2023ko uztailaren 28a.—Andoni Alvarez Lete, alkatea. (6013)

ERANSKINA

1. *Xehetasun-azterketaren xedea.*

Xehetasun-azterketa honen helburua aurreikusitako bolumenak berrantolatzea da, eta, beraz, zerbitzugunea osatzen duten bolumen horietarako lerrokadura berriak zehaztea.

Era berean, AD-28.1 eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezian jasotako antolamendu xehatuaren zehaztapenak egokitu-

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Urbanismo

*Aprobación definitiva del Estudio de Detalle correspondiente a la parcela AD 28.1. del AIU 28 Industrial de Sorabilla.*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, se publica el presente anuncio relativo al referido acuerdo.

El Pleno de la Corporación Municipal, en sesión celebrada con fecha 27 de julio de 2023 ha aprobado definitivamente el Estudio de Detalle correspondiente a la Parcela AD 28.1 del AIU 28 Industrial de Sorabilla del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain presentado con fecha 20 de enero de 2023 por D. Giacmo Giuvanni Felcher, en nombre y representación de Low Cost Euskadi.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Se advierte que, si bien el plazo para la presentación del recurso comienza el día siguiente a la fecha de notificación o publicación de la resolución, finaliza el día equivalente a dicha fecha de notificación o publicación en el mes de vencimiento. Si el último día del plazo fuera inhábil o festivo finalizará el primer día hábil siguiente.

Asimismo, se informa que el recurso podrá presentarse hasta las 15 horas desde el día hábil siguiente al del vencimiento del plazo, en la Secretaría del Tribunal o, de existir, en la oficina o servicio de registro central que se haya establecido, de conformidad con la STC 64/2005 de 14 de marzo.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime pertinente.

Se informa que la interposición del recurso indicado no suspende, salvo que se solicite y se acuerde por Tribunal la suspensión, la ejecución del acto impugnado y que la no presentación del recurso o, en su caso, la presentación fuera de plazo convierte la resolución en acto administrativo firme.

Andoain, a 28 de julio de 2023.—El alcalde, Andoni Alvarez Lete. (6013)

ANEXO

1. *Objeto del Estudio de Detalle.*

El objeto del presente Estudio de Detalle es reordenar los volúmenes previstos y por consiguiente, definir nuevas alineaciones para dichos volúmenes que conforman la Estación de Servicio.

Igualmente se adaptarán las determinaciones de la ordenación pormenorizada contenida en el Plan Especial de Ordena-

EK\CV GAO-I-2023-06013

ko dira, lurzatiaren antolamenduari eta Plan Berezian aurreikusitako zerbitzugunearen konfigurazioari eta kokapenari dagokienez.

*2. Hartutako konponbidearen deskribapena eta justifikazioa.*

Ez da eraikin edo eraikuntza berririk egingo AD 28.1 Plan Bereziaren eremuan, markesina eta erregai-hornidurako unitateak izan ezik.

Beraz, aurreikusitako bolumenak, eraikuntzakoak ez direnak, eta ondoriozko lerrokadurak HAPBarekiko aldatuko dira, Erabilera Baldintzak, lurzatien ezaugarriak (aparkalekua, sarbideak) eta Eraikuntza Baldintzak aldatu gabe.

Hauek dira aurreikusitako aldaketak:

* Bi hornidura-unitate aurreikusi dira, baten ordez. Unitate bakoitzak lau mahukaz osatutako bi aldeko hornigailu bat du.

Bi unitaterekin ibilgailuak xurgatzeko gaitasuna nabarmen hobetzen dela egiaztatu da, eransten den Trafiko Azterlanaren arabera.

* Hornidura-unitateak HAPBn aurreikusitako zentrotik lurzatiaren muturretako batera lekualdatzen dira.

Aldaketa horrek erregai-hornikuntza gunearen eta aparkalekuaren arteko interferentziak ezabatzen ditu, eta ez da beharrezkoa gutxieneko distantziak markatzea. Neurri handi batean, eremu bakoitzerako sarbideak independizatu egiten dira.

Partzelarako sarbidearen eta hornigaiaren arteko distantziari esker, ibilgailuak xurgatzeko gaitasuna ere hobetzen da, Trafiko Azterlanean islatzen den bezala.

* Hornidurarako 2 unitate aurreikusten direnez, markesina handiagoa sortuko da, erronboidea, horniduraren azalera bezalaxe.

Markesinaren altuera, zorutik estalkiaren goialdera, ez da 6,00 m-tik gorakoa izango.

Markesinaren oinplanoko neurriak honako hauek dira:

— Alde handiak: 18,75 m.

— Alde txikiak: 6,40 m.

Lerrokadurak erantsitako EP-02 planoan agertzen dira.

HAPO-aren Arau Orokorretako 60.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, markesinak ez du hirigintza-ondoreetarako eraikigarritasunik zenbatzen.

ción Urbana del ámbito AD-28.1, en lo referente a la ordenación de la parcela y a la configuración y ubicación de la estación de servicio prevista en el Plan Especial.

*2. Descripción y justificación de la solución adoptada.*

No se realizarán nuevas edificaciones ni construcciones en el ámbito del Plan Especial AD 28.1, con la salvedad de la marquesina y las unidades de suministro de combustible.

Por lo tanto los volúmenes previstos, considerados no edificatorios y las alineaciones resultantes, se modificarán respecto al PEOU, sin alterar las Condiciones de Uso, características de las parcelas (aparcamiento, accesos) y Condiciones de Edificación.

Las modificaciones previstas son las siguientes:

* Se prevén dos unidades de suministro en lugar de una. Cada unidad se compone de un surtidor bifrontal compuesto de 4 mangueras.

Se ha comprobado que con dos unidades la capacidad de absorción de vehiculos mejora notablemente, según Estudio de Tráfico que se adjunta.

* Las unidades de suministro se desplazan del centro, previsto en el PEOU a uno de los extremos de la parcela.

Dicha modificación elimina las interferencias entre la zona de repostaje y la zona de aparcamiento, no siendo necesario el marcaje de distancias minimas. Se independizan en gran medida los accesos a cada una de las zonas.

El distanciamiento entre el acceso a la parcela y la zona de repostaje también mejora la capacidad de absorción de vehículos, tal como se refleja en el Estudio de Tráfico.

* La previsión de 2 uds. de suministro, dan lugar a una marquesina mayor, de forma romboide, al igual que la superficie de suministro.

La altura de la marquesina, de suelo a parte superior de la cubierta, no sobrepasará los 6,00 m.

Las dimensiones en planta de la marquesina son las siguientes:

— Lados mayores: 18,75 m.

— Lados menores: 6,40 m.

Las alineaciones quedan reflejadas en el plano adjunto EP-02.

De conformidad con lo establecido en el artículo 60.2 de las Normas Generales del PGOU, la marquesina no computa edificabilidad a efectos urbanísticos.



EK\CV GAO-I-2023-06013